

## **BALEIKE UDAL TALDEAREN OHARRA**

Baleike Udal Taldetik ikasle guztien greba eskubidearen alde gaudela helaraztea nahi dugu. Ikasleen burujabetasun eta ahalduntzea ezinbestekoak dira gizartearen eraldaketa sustatzeko, sujetu politiko aktiboak bilakatzea eskubideak defendatu eta areagotzeko.

Bide horretan, greba eskubidea ikasleek politika egiteko eta aldarrikapenak borrokatzeko funtsezko erreminta da eta gure taldetik modu trinkoan babesten dugu eskubide hau.

Horren baitan, Ikasle Abertzaleak-en aldetik ostegunean deituta dagoen mobilizazioko hainbat aldarrikapenekin bat egiten dugu:

-%25eko deslotzearen puntua desagertzea, paroak egin ahal izatea grebako baldintza berdinekin.

-4. DBH-ko ikaskideak parorako eta grebarako eskubidea lortzea.- Greba egunak azterketa egun batekin bat eginez gero azterketa atzeratzeko eskubidea.

-Ikasle antolakuntza anitzetako militanteek askatasunez egin ahal izatea euren lan politikoa ikastetxean (aurkezpenak, bilerak,...).